

Bestelako Xedapenak

ETXEBIZITZA, HERRI LAN ETA GARRAIO SAILA

2621

AGINDUA, 2010eko maiatzaren 12koa, Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioetako sailburuarena, etxebizitzaren eta lurzuaren arloan 2010. urtean babes daitezkeen hainbat jardunetarako laguntzak finantzatzeko esleitutako kredituen zenbatekoak iragarzen dituena.

Etxebizitza eta lurzuaren arloan gaur egun indarrean dagoen araudiaren arabera, nahitaezkoa da urtero Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian iragartzea etxebizitza eta lurzuaren arloan hainbat laguntza-ildo, aurrekontu-kredituen zenbatekoak finantzarioki estaltzeko.

Gaitutako aurrekontu-kredituak iragarri behar hori hasierakoak direla zein eguneratuak direla, betiere kredituak aldatzeko legezko aukeren arabera herritarrei eman beharreko informazioaren maila hobetzeko asmo nabariari erantzuten dio, haiek baitira laguntza-sistema horien onuradunak.

Badira beste jarduera-ildo batzuk etxebizitza-programan merkatuan zuzeneko esku-hartzeak egitea dakartenak Sailaren edo haren sozietate publikoen bitartez lurzuaren erosketan eta urbanizazioan eta etxebizitzaren eraikuntzan, erosketan eta alokairuan, emaitzak jendaurrean zabaltzeko prozedura espezifiko eta bereziak dituztenak (kontratu publikoak, kontratu-programak, lankidetzak-hitzarmenak, eta abar), eta publizitate-mekanismo horretatik kanpo ebazten direnak, berezkoak dituzten beste batzuk dauzkatelako, lege- eta araudi-aginduak tarteko.

Diru-laguntzen politika ugarik ere publizitate- eta deialdi-prozedura desberdinak dituzte halaber, banakako deialdi espezifikoak dutenak (esaterako, itunpeko sustapen bateko diru-laguntzen esleipena) edo deialdi publiko bereziak dituztenak, eta, aldi berean berezkoak (area degradatuak, Eraikal, irisgarritasuna, iraunkortasuna, eta abar).

Hori guztia, betiere diru-laguntzen politikak argitaratzeko mekanismoak beteta indarrean daudenak, alegia, baina erreferentziako Agindu honen hedadura-esparrutik kanpo.

Beraz, 2010eko ekitaldirako kredituak iragartzeko baldintzek zuzenean eraginpean hartutako laguntza-politiken esparru zehatza honako hau izango da:

Otras Disposiciones

DEPARTAMENTO DE VIVIENDA, OBRAS PÚBLICAS Y TRANSPORTES

2621

ORDEN de 12 de mayo de 2010, del Consejero de Vivienda, Obras Públicas y Transportes, por la que se da publicidad a los importes de los créditos consignados para la financiación de ayudas de diversas actuaciones protegibles en materia de vivienda y suelo 2010.

De acuerdo con la normativa actualmente en vigor, en materia de vivienda y suelo, existe la obligatoriedad de dar publicidad, anualmente, en el Boletín Oficial del País Vasco, a los importes de los créditos presupuestarios consignados para la cobertura financiera de diversas líneas de ayudas en materia de vivienda y suelo.

Dicho requisito de dar publicidad a los créditos presupuestarios habilitados, inicialmente o actualizados, según las posibilidades legales de modificación de créditos, responde a la evidente intención de mejorar los niveles de información a los ciudadanos, beneficiarios de dichos sistemas de ayudas.

Existen otras líneas de actividad en el programa de vivienda que implican intervenciones directas en el mercado, del Departamento o a través de sus sociedades públicas, en compra y urbanización de suelo y en edificación de viviendas, en compra y en alquiler, que tienen procedimientos específicos y diferenciados de difusión pública de sus resultados (contratos públicos, contratos-programas, convenios de colaboración, etc.), y que se resuelven fuera de este mecanismo de publicidad porque disponen de otros que le son propios por imperativos legales y reglamentarios.

Existen además un amplio abanico de políticas subvencionales que tienen también procedimientos de publicidad y convocatoria diferentes, que o bien son objeto de convocatoria individual específica (por ejemplo la adjudicación de las subvenciones de una promoción concertada) o tienen convocatorias públicas diferenciadas, y, asimismo, propias (áreas degradadas, Eraikal, accesibilidad, sostenibilidad, etc.).

Todo ello en cumplimiento, también, de los mecanismos de publicación de las políticas subvencionales, en vigor, pero fuera del ámbito difusor de esta Orden de referencia.

Por lo tanto, el campo concreto de las políticas de ayudas, directamente afectado por los requisitos de publicidad de los créditos afectados para el ejercicio 2010, es el siguiente:

39/2008 Dekretua, martxoaren 4koa, babes publiko etxebizitzaren araubide juridikoari eta etxebizitzaren eta lurzoruaeren arloko finantza-neurriei buruzkoa.

Agindua, 2006ko abenduaren 29koa, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuarena, etxebizitza eros-teko finantza-neurriei buruzkoa; honako hau biltzen du bere 1., 2. eta 3. xedapen gehigarrietan: erabilitako etxebizitza libreak erostera bideratutako laguntzak finantzatzeko eskuragarri dauden kredituak urtero iragarri beharra; kreditu horiek osatzea eta eguneratzea; laguntza-ematea eten dela iragartzeko jarraitu beharreko prozedura formalak; eta, azkenean, etete horrek bideratzen ari diren espedienteetan duen eragina.

Agindua, 2006ko abenduaren 29koa, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuarena, etxebizitza birgaitzeko finantza-neurriei buruzkoa; eta hitzez hitz eta termino beretan errepikatzen du bere 1., 2. eta 3. xedapen gehigarrietan aurreko paragrafoan azaldutako erregulazioa.

Agindua, 2006ko abenduaren 29koa, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuarena, lehentasunez erregimen orokorreko eta erregimen bereziko babes ofizialeko etxebizitzaren sustapenerako lurzoruko ondare publikoak eratzeko lurzoruaeren kostu bidezko erosketari buruzko lurzoruaeren arloko finantza-neurriei buruzkoa.

Agindua, 2008ko azaroaren 7koa, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuarena, babes ofizialeko etxebizitza sustatzeko laguntzei eta alokairua sustatzeko neurriei buruzkoa; Agindua horren 1., 2. eta 3. xedapen gehigarrietan hitzez hitz eta termino beretan errepikatzen da aurreko paragrafoan azaldutako erregulazioa.

Horren ondorioz, eta Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen azaroaren 24ko 607/2009 Dekretuaren 4. artikuluan xedatutakoari jarraiki, eta etxebizitza eta lurzoruaeren arloan indarrean dagoen araudiaren arabera, honako hau

EBATZI DUT:

Lehenengoa.— 2010ko ekitaldian etxebizitza eta lurzoruaeren arloan diru-laguntzen lineei finantza-estaldura emateko honako ordainketa- eta konpromiso-kreditu hauek iragartzea:

Decreto 39/2008, de 4 de marzo, sobre régimen jurídico de viviendas de protección pública y medidas financieras en materia de vivienda y suelo.

Orden de 29 de diciembre de 2006, del Consejero de Vivienda y Asuntos Sociales, de medidas financieras para compra de vivienda, que contempla en sus disposiciones adicionales 1.^a, 2.^a y 3.^a: la obligación de dar publicidad anualmente de los créditos disponibles para la financiación de las ayudas destinadas a la adquisición de vivienda libre usada; la formación y actualización de los citados créditos; el procedimiento formal a seguir para publicitar, en su caso, la suspensión de la concesión de ayudas, y finalmente los efectos de la citada suspensión sobre los expedientes en curso de resolución.

Orden de 29 de diciembre de 2006, del Consejero de Vivienda y Asuntos Sociales, sobre medidas financieras para rehabilitación de vivienda, que reproduce literalmente y en sus mismos términos, en sus disposiciones adicionales 1.^a, 2.^a y 3.^a, la regulación anteriormente explicitada en el párrafo anterior.

Orden de 29 de diciembre de 2006, del Consejero de Vivienda y Asuntos Sociales, sobre medidas financieras en materia de suelo referente a la adquisición onerosa de suelo para formación de patrimonios públicos de suelo con destino preferente a la promoción de viviendas de protección oficial de régimen general y de régimen especial.

Orden de 7 de noviembre de 2008, del Consejero de Vivienda y Asuntos Sociales, sobre ayudas a la promoción de viviendas de protección pública y medidas de fomento al alquiler, que reproduce literalmente y en sus mismos términos, en sus disposiciones adicionales 1.^a, 2.^a y 3.^a, la regulación anteriormente explicitada en el párrafo primero.

En su virtud, y de conformidad con lo dispuesto en el artículo 4 del Decreto 607/2009, de 24 de noviembre, por el que se establece la estructura orgánica y funcional del Departamento de Vivienda, Obras Públicas y Transportes, y sobre la base normativa en materia de vivienda y suelo, en vigor,

RESUELVO:

Primero.— Dar publicidad a los créditos de pago y de compromiso destinados a dar cobertura financiera a las líneas subvencionales en materia de vivienda y suelo, a conceder en el ejercicio 2010, que se indican a continuación:

Babes daitekeen jarduna <i>Actuación protegible</i>	2010	2011	2012	2013	Gainerakoak noiz arte 2033 <i>Resto hasta 2033</i>	Guztizkoa <i>Total</i>
Erabilitako etxebizitza librea eskuratzea <i>Adquisición de Vivienda Libre Usada</i>	100.000					100.000
Birgaitzea <i>Rehabilitación</i>	12.400.000					12.400.000
Energia-eraginkortasuneko etxebizitzak birgaitzea <i>Rehabilitación de Viviendas con Eficiencia Energética</i>	500.000					500.000
Etxebizitza babestuetara bideratzeko udaleko lurzoru- ondareak sortzea <i>Formación de Patrimonios Municipales de Suelo con Destino a Vivienda Protegida</i>	200.000					200.000
Alokaikuaren sustapena <i>Fomento al Arrendamiento</i>	5.250.000	5.000.000	5.000.000			15.250.000
2010eko Finantza Hitzarmenaren sorospenak <i>Subsidación de Puntos de Interés Convenio Financiero 2010</i>	1.559.000	4.550.000	4.550.000	4.250.000	42.550.000	57.459.000
GUZTIZKOAK / TOTALES	20.009.000	9.550.000	9.550.000	4.250.000	42.550.000	85.909.000

Bigarrena.– «Alokairuaren sustapena» epigrafean sartzen diren diru-laguntzak babestekoak diren jardun hauetarako izango dira: salmentarako babes ofizialeko etxebizitzak sustatzeko, bai etxebizitza berriak, bai birgaitutakoak; babestutako alokairurako etxebizitzak sustatzeko; babestutako alokairuan eskaintzeko etxebizitzak erosteko; txandakako alojamenduak sustatzeko, eta landa-eremuetan titulartasun publikoko etxebizitzak birgaitu eta alokairuan jartzeko.

Hirugarrena.– «2010eko Finantza Hitzarmenaren sorospena» epigrafean sorospen-eskubidea duten jardun hauek sartzen dira: babestutako alokairurako etxebizitzak sustapena; babestutako alokairuan eskaintzeko etxebizitzak erosteko eragiketak; txandakako alojamenduen sustapena, eta lurzorua kostu bidez eskuratzeko eragiketak egiteko, edozein herri-administrazioaren lurzoru-ondare publikoak erazeko, ondoren, ahal dela, babes publikoko sustapenera bideratzeko.

Laugarrena.– 2010eko ekitaldiaren kontura eman beharreko laguntzen guztizko zenbatekoak ezin izango ditu gainditu aurreko atalean adierazitako diru kopuruak edo indarrean dagoen legedi aplikagarriari jarraiki aurrekontu-aldaketarik onartuz gero, kopuru horren eguneratzearen ondoriozko kopurua.

Horrenbestez, zenbateko hori agortu ondoren, ez dira laguntza gehiago emango, eta kreditu-agortze hori etxebizitza, Herri Lan eta Garraioetako sailburuaren Agindu bidez jakinaraziko da Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian.

Bosgarrena.– Edonola ere, Agindu honetan adierazitako etxebizitza eta lurzoruaren arloko araudiaren arabera baldintza guztiak betetzen dituzten eta baliabide ekonomikorik ezagatik soilik ukatzen diren eskabideak hurrengo ekitaldi ekonomikoan ebatzi ahal izango dira, baldin eta eskatzaileak Lurralde Ordezkaritzara edo eginkizun horretarako dagokion kudeaketa-zuzendaritzara idazki bat bidaltzen badu, eskabideari baldintza beretan eusteko asmoa duela adierazita.

AZKEN XEDAPENA

Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunean hasi da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2010eko maiatzaren 12a.

Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioetako sailburua,
IGNACIO MARÍA ARRIOLA LÓPEZ.

Segundo.– El epígrafe denominado «Fomento al arrendamiento» comprende las subvenciones para las actuaciones protegibles de: promoción de vivienda de protección oficial para venta, incluyendo tanto promoción de vivienda nueva como promoción mediante rehabilitación, promoción de vivienda para su puesta en arrendamiento protegido, adquisición de vivienda para su puesta en arrendamiento protegido, promoción de alojamientos rotacionales y rehabilitación y puesta en arrendamiento de viviendas de titularidad pública en medios rurales.

Tercero.– El epígrafe denominado «Subsidios Convenio Financiero 2010» comprende las siguientes figuras con derecho a subsidiación: promoción de viviendas para arrendamiento protegido, operaciones de adquisición de vivienda para su puesta en arrendamiento protegido, promoción de alojamientos rotacionales y operaciones de adquisición onerosa de suelo para formación de patrimonios públicos de suelo dependientes de cualquier Administración Pública, con destino preferente a la promoción de vivienda de protección pública.

Cuarto.– El volumen total de ayudas a conceder con cargo al ejercicio 2010 no podrá exceder de las cuantías señaladas en el apartado anterior o de la cantidad que resulte de su incremento al alza, en el caso de que se aprueben modificaciones presupuestarias de conformidad con la legislación vigente aplicable. Las modificaciones se publicarán en el Boletín Oficial del País Vasco, mediante Orden del Consejero de Vivienda, Obras Públicas y Transportes.

No procederá, por tanto, la concesión de nuevas ayudas una vez agotado dicho importe, haciéndose público el agotamiento del crédito en el Boletín Oficial del País Vasco, mediante Orden del Consejero de Vivienda, Obras Públicas y Transportes.

Quinto.– No obstante, las solicitudes que reúnan todos los requisitos para ser atendidas conforme a la regulación contenida en la normativa en materia de vivienda y suelo a la que se refiere la presente Orden y que se denieguen únicamente por falta de recursos económicos, podrán ser resueltas en el ejercicio económico siguiente, siempre y cuando el solicitante dirija un escrito a la Delegación Territorial o Dirección funcional gestora correspondiente, manifestando su intención de mantener su solicitud en las mismas condiciones.

DISPOSICIÓN FINAL

La presente Orden surtirá efectos al día siguiente de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 12 de mayo de 2010.

El Consejero de Vivienda, Obras Públicas y Transportes,
IGNACIO MARÍA ARRIOLA LÓPEZ.